

Justizia Administrazioiko zuzendari berriarekiko bilera

Pasa den ostegunean, hilak 12, Justizia Saileko Amparo López zuzendari berriarekin bildu ginen LAB-eko 3 herrialdeetako delegatuok. Bilera horretara Miren Gallastegi sailburuordea ere gerturatu zen eta berarekin hainbat gai eztabaidatu genituen.

Harremanetan hasteko bilera izan zen. Zuzendariak gure aldarrikapenak ezagutu nahi zituen, baina ezin izan genuen negoziatzeko dagoen guztiari buruz hitz egin, bilerak ordu beteko iraupena bakarrik izan baitzuen.

Sailarekiko azken 4 urteetako harremanen ganean bai jardun genuen eta zuzendariari adierazi egin genion hauek penagarriak izan direla. Hau guztia aldatzeko premia helarazi genien eta bai sailburuordea, bai zuzendaria, prest agertu ziren, negoziazioa bidea dela baieztatuz. Hasiera ona dirudi; denboraren ondorioz ikusi beharko dugu ea gauzatzen den.

Sail berriarekin harremanak hasi nahi izan ditugu ebatzita egon beharko liratekeen gaiak mahai ganean jarriz: auzitegiko medikuak, homologazio eskubidea, erregistro zibilaren etorkizuna eta bulego judizial berria. Kontu horietan guztietan negoziatzeko prest agertu ziren; hala ere, betikoa esan zuten: *“ez dago dirurik”*. LABek argi utzi zuen funtsezkoena dela eskubideak bermatzea eta gero diru kontuak adosteko aldia etorriko dela.

Eskatu genion ahalik eta azkarren bilera bat izan dezagun, gai guzti hauek jorratzeko, baina denbora apur bat eskatu zigun eguneratu ahal izateko. Aurrera pausuak emateko asmoz hainbat adibide mahaigaineratu genizkion, langileekiko aurreko sailaren gehiegikeriak, kasu: Bilboko 8. Instrukzio epaitegiko grabazio sekretupekoak ematea, eskatutako baimenekin jarraitzeko derrigortzea nahiz eta bertan behera utzi eta lanean egon... Sail honen funtzionamendua bidegabekoa izan dela adierazi genion, sindikatuok epaiak irabazi arren nahi zuena egiten jarraitzen baitzuen. Honen guztiaren erantzule direnentzako ondorioak exijitu genituen. Halaber, AEMEI-ko (Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua) zuzendaritza taldearen dimisioa ere eskatu genion, ezin izan dutelako institutuaren barneko gatazkak konpondu, ezta auzitegi medikuen greba kudeatu ere.

Oso bilera mamitsua izan zen, non azken 4 urteotako saileko gestioa argitasunez azaltzen saiatu ginen; zeina teknikari batzuen jarreraren ondorioz gaizkiagotu egin den, lankideen erara baino etsaien moduan jokatzen baitute.

Amaitzeko, eta sail berriaren borondatea positiboki balioetsiz, honi berari eskatzen diogu funtzionatzeko era aldatzea, nagusikeria alde batera utziz eta negoziazio zein adostasun bidea jarraituz.